

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
115 positibo berri	1898 hildako EAEn	352 positibo berri	564 hildako
10.323 positibo guztira*	49 UCIn EAEn	16.879 positibo guztira	26 UCIn Nafarroan

\*HERNANIN 332 (+1), ASTIGARRAGAN 61 (0)

## Zazpigarren txapela etxera eramán du Urrizak, atzoko finalean sufrimenduz jokatu bazuen ere

Javier Urrizak irabazi zuen atzo, erremonteko banakako txapeldunaren zazpigarren txapela, Kutxabank Torneoko finalean Endika Urrutiari 30 eta 27 irabazi ondoren.

### HERNANI ERREMONTEA

Atzo, erremonteko Kutxabank Torneoko finala jokatu zen, eta Urrizak lortu zuen garaipena. Iruñakoak asko sufritu zuen Endika Urrutia ausartari irabazteko, erresistentzia handia eskaini baitzion.

Txapelketa, «hotz» hasi zen, jokaldiko pare bat tantorekin, sake on batekin eta bi takorekin, 0 eta 5 galtzen hasi zen Urriza. Partida azkar joan zen, ia pilotarik gabe, eta hala gertatu zen

4 eta 9 egin arte. Hortik aurrera berotu egin zen Urriza, eta partida berri bat hasi zen, hala ere, Endikak serio eta indartsu jarraitzen zuen.

Urrizak garaipena lortu eta gero, aitortu zuen asko sufritu zuela, «tentsioan eta deseroso egon naiz. Ez nuen bere lekuan jotzen, hala ere, borrokatuz 30 puntuetara heldu naiz», eta bere etorkizunari buruz ere jardun zuen, «oraingoz txapela dastatu behar dut, hau gozatu. Ikusiko dugu etorkizunean zer egin». **K**



Sufritu bazuen ere, Urrizak zazpigarren aldiz lortu zuen txapela. Argazkia: Maialen Andres.

## Milaka herritarrekin, Euskal Herriko hainbat tontor ezagun igoko dira, datorren larunbatean

Urriaren 3an, 'Izan Bidea' dinamikaren baitan, milaka herritarrekin bat eginik, Euskal Herriko tontor ezagunenak igoko dira, «650 tontor inguru preso eta iheslarien etxeratzearen alde eta elkarbizitza eta bakearen alde», Sarek antolatuta.

### HERNANI 650 TONTOR

Datorren asteburuan, 650 tontor ekimena egingo da, hau Izan Bidea dinamikaren baitan sartzen da eta Sarek antolatu du. Milaka herritar bildu nahi dituzte, Euskal Herriko tontor ezagunenak igotzeko, «650 tontor igoko ditugu, preso eta iheslarien etxeratzearen alde eta elkarbizitza eta bakearen alde».

Beterri-buruntzaldea eskualdean 11 izango dira, herri

guztien artean igoko dituzten tontorrak, hala nola, Igoín, Onddi, Adarra, Onddo, Azketa, Santa Barbara, Buruntza, Zaburu, Santiagomendi, Andatza eta Belkoain.

Hernaniren kasuan, bi tontorretara igotzeko erronkari eutsi dio Hernaniko Sarek, Adarra eta Igoínera, hain zuzen. Hori horrela, bi deialdi jarri dituzte; Adarra igotzeko, goizeko 10:00etan jarri dute zita, Besabin. Igoínera igotzeko al-

diz, 10:30etan, Akolako aparkalekuan. Bi tontorretan, goizeko 11:30ak aldera, argazki herrikoia aterako da. «Ekimen eder eta esanguratsua egitea da gure asmoa, argi erakusteko urratsak emateko prest gaudela, maldan gora edo behera, baina guztiok batera, egoera honekin behin betiko amaitzeko».

### «Gizarte aktibazioa eta instituzioekiko lanketa uztartuz»

Maiatzean, Izan Bidea aurkeztu zenetik, 230.000 kilometro egin dira, ekimenean izena eman dutenen 3000 pertsonen artean. «Egunero egunero, gero eta gehiago gara Ibiltarien Sare honen parte egin garen herritarrek, eta dinamika honen baitan kilometro eta urratsak bartzatzen gabiltzanak».

Dinamika honek, «euskal

presoen eta iheslarien etxeratzearen alde, baita elkarbizitza eta bakearen alde gauden herritarrek batzeko asmoa du, urratsak emanez, bidea izan gaitzen. Gizarte aktibazioa eta instituzioekiko lanketa uztartuz, auzi honi, behin betiko irtenbidea eman nahi diogulako». Hori horrela, Sarek une aproposa ikusi du, izan ere, «euskal jendartearen eta instituzioen adostasuna dugu preso eta iheslariak pairatzen duten salbuespen legediarekin amaitu eta etxerako prozesua martxan jartzeko». Hori horrela, Sarek jakinarazi du, egoera honek ezin duela gehiago luzatu, «presoak Euskal Herrian egon behar dute, eta senideek ezin dute euren bizitza errepidean arriskuan jartzen jarraitu, ez eta espetxean duten senidea ikusi eta

ukitu gabe urte erdia igaro, motxiladun haurrei, Covid-19a dela eta gertatzen ari zaien moduan. Are gutxiago, gaixotasuna dela medio, preso duten alaba, aita edo anaia hiltzen ikusten jarraitu. Horregatik, nahikoa da, konponbide garaia da».

Sarek dio, bidea egiten jarraituko dutela, «Ibiltarien Sare hau gero eta haundiago eta zabalago egin behar dugu, etxerako, elkarbizitzarako eta bakearako bidea egi bilaka dezagun». Beraz, Hernaniko Sarek, hernaniarrak animatu nahi ditu, ekimen haundi honetan parte hartzera. **K**

«Bi tontorretan, 11:30ak aldera egingo da argazki herrikoia»

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**GAUR** Goizaldean oraindik euria egin dezake, hala ere, frontea azkar pasako da eta atertu eta egpera erabat lasaituko da. Goizean ostare ederrak irekiko dira, baina arratsalderako berriro ere hodei baxuak ugaritu eta giroa moteldu egingo da. **Min.13° / Max.16°**

**BIHAR** Bihar, giroa argituz joango da. Goizean, hodei baxuak gailenduko dira ipar partean. Arratsalderako, ordea, giroa lehortu eta ostare zabalak irekitzen joango dira. Temperatura maximoak koska bat gorago geldituko dira. **Min.10° / Max.17°**

**DOBERA EUSKARA ELKARTEA**

**LAGUNTZAILEK**

**Hernaniko Udala**

**Astigarraigoko Udala**

**Dobera Udala**

**Goizuetako Udala**

**Aranoko Udala**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Tanco** Idiazabal, 39 (Umieta) **943 550942** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**EUSKAL GOBIERNUA**

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**

## Eskubideak aldarrikatzera aterako dira pentsionistak plazara, bihar

Bihar 12:00etan jarri dute zita Hernaniko pentsionistek udaletxe parean, «pentsio duinen aldeko borroka» egiteko.



Plazan bilduko dira bihar pentsionistak, «pentsio duinen alde» protestatzeko.

**HERNANI PENSIONISTAK**

Plazetara itzuliko dira berriro ere pentsionistak, izan ere, datorren asteko ostegunean Adinekoen Nazioarteko Eguna dela eta, bihar eguerdiko

12:00etan, Hernaniko udaletxe parean egingo dute agerraldia pentsionistek. Segurtasun neurriak hartuko dituzte, maskararen erabilera eta distantziak

mantenduz. Hala ere, «pentsio duinen aldeko borrokan» jarraituko dutela jakinarazi dute. Eta bertaratzeko deia ere luzatu dute. **K**

## 'Euskara zorrotz, hizkera bizi' Joxerra Gartziaeren eskutik

Urriaren 15etik arazoaren 5era, bi orduko lau saio eskainiko ditu Joxerra Gartzia, eta oraindik izena emateko aukera dago.



Joxerra Gartzia, liburu artean.

**HERNANI EUSKARALDIA**

Euskaraldiak antolatuta, datorren hilabetean, Joxerra Gartzia *Euskara zorrotz, hizkera bizi* tailerra eskainiko du,

urriaren 15etik arazoaren 5era bitartean, hain zuzen. Bi orduko lau saio eskainiko ditu, eta jakinarazi du, ez dela euskaraz ikasteko ikastaro bat, «euskaraz dakitenek beren hizkuntza erregistro informalean aberas-

tekoa» baizik. Doberako bazkideek 20 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 25 euro. Bi modutara eman daiteke izena, [euskaraaridu@dobera.eus](mailto:euskaraaridu@dobera.eus) helbidera idatziz, edo 689 675 462 telefonora deituz. **K**

## Elkar laguntza eta ikasketa saioak, herriko merkatari eta ostalarientzat

Hernaniko Udalak, elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu, Hernaniko merkatari eta ostalari guztientzat.

**HERNANI UDALA**

Hernaniko merkatari eta ostalarientzat, elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu Hernaniko Udalak. Saio hauek Aran Erasun *coach* eta trebatzaileak zuzenduko ditu, eta doakoak izango direla azaldu du Udalak.

Izena eman daiteke, eta urriaren 8an amaituko da epea. Bi modu daude horretarako, [merkataritz@hernani.eus](mailto:merkataritz@hernani.eus) hel-

bide elektronikora idatzi, edo 943 33 70 28 telefonora deituta, goizez.

**Zer egingo da saioetan**

Hernaniko merkataritzaren *Amia* (aukerak, mehatxuak, indargune eta ahulguneak) azterketatik «hobekuntza eta garapenerako bideak elkarlanean sortuko dira». Berrikuntza ikuspergitik, ahalmen mapa hedatuko da. Irekiera faseko mugimenduari (barnekoa zein kanpokoa,

emozionala zein jarduerari lotutakoa) «arreta jarri, elkar eutsi, eta arintzeko bidea eskainiko da». Azkenik, erronka propioak besteekin elkarlanean egiteko bideak kolektiboki, «aberastuko da». Saio hauek nola egingo diren ere azaldu du Udalak, «konfiantzazko testuinguru batean, pertsonarekin ikuspegi integratuz, elkar zainduz eta eginez ikasiz». Saio hauek gainera, Iturrola Elkarlan sorgunean izango izango dute lekua, «aforo mugatuarekin». Urriaren 13an, euskaraz, 14:15-16:30, eta urriaren 14 ean, gaztelaniaz, 14:15-16:00, bi egunak merkatarientzat. Ostalarientzat, elebrietan, urriaren 20ean, 16:00-18:00. **K**

## Gimnasia ikastaroa, Goiz Eguzkiren eskutik

Aurtengoan ere, Goiz Eguzkik kiroldegiarekin bat eginez, gimnasia ikastaroak antolatu ditu, eta bihar hasiko da izen emate epea.

**HERNANI GIMNASIA IKASTAROAK**

Aurtengo egoera arraroa bada ere, Goiz Eguzkik ez du hutsik egin, eta gimnasia ikastaroak antolatu ditu, urtero moduan, Hernaniko Kiroldegiarekin elkarlanean. Ikastaroa 2020ko urritik, 2021eko ekainera bitartean egingo da, astelehen eta

ostegun goizetan.

Gainera, joan den urtean parte hartu zuten bazkideei telefonoz deituko zaie, «ikastaro berri honetara joateko asmoa duten galdetuz».

Izena emateko epea, bihar hasiko da, eta hilaren 30ean amaitu. Arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara bitartean Goiz Eguzkiko telefonora deitu beharko da 943 55 10 32 zenbakira, hain zuzen.

Gimnasia ikastaroko txanda bakoitzean 25 pertsonako aforoa jarri dute, «plaza hauek betetzen badira, zozketa bidez esleituko dira». **K**

## Matrikulazio epea zabalik dago, Udal Euskaltegian

Hernaniko Udal Euskaltegian, oraindik plaza batzuk hutsik daudenez, matrikulazio epea zabalduko da, hilaren 30era arte.

**HERNANI UDAL ESKALTEGIA**

Udal Euskaltegiak, bihar eman go dio hasiera 2020-2021 ikasturteari. Hala ere, oraindik badaude plaza batzuk hutsik, eta horiek betetzeko asmotan, Her-

naniko Udal Euskaltegiak, matrikulazio epea berriro zabaldu du. Honako hau, irailaren 30era arte egongo da, eta izena emateko ordutegia honakoa izango da; goizez 09:30etatik, eguerdiko 13:30etara, eta arratsaldetan berri, 16:30etatik 19:30etara.

Hainbat modu daude izena emateko, bertaratzu egin daiteke, Karobieta auzoa 63 (anbulatorio zaharra). Helbide elektronikora ere idatzi daiteke, [euskaltegia@hernani.eus](mailto:euskaltegia@hernani.eus) edo 943 33 18 96 telefonora deituta. **K**

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† JOSEFINA GARCIA PONCE**

(Juan Larrañagaren alarguna)  
Atzo hil zen, 89 urte zituela,  
- Goian bego -

Haren seme-alabak: Teo eta Maika Gonzalez, Josune, eta Jose Luis (†); bilobak: Garazi, Goretti eta Alberto, Uxue eta Noe, Haizea; birloba: Bianditz; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**HERNANIN, 2020ko irailaren 27an**

Oharra: Gorputz laguntza bere familia artean egingo da.

### IRAGARKI MERKEAK

**Egurrezko espalderra salgai.** Neurriak 2,00 x 2,10 metro. Egoera oso onean.

**Deitu: 652 707 215.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**